

Aretxabaleta,
1993ko uztailak 15

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



Udan eguzkia eta jolasak

• Afizioak:
Mariatxen Urkia

• Pertsonaia:
Inaxio Galdos

• Kirolak:
Eskalada



Urtero eta ohiturari jarraituz, P.A.G.L.Ek Portasol auzoko jaiak antolatzen ditu. Hainbat gazte urteetan zehar

Portasoleko jaiak gero eta gorago

batzordean sartzen joan dira, beti Rosi Palaciosren koordinaziopean 1989. Urterarte, Udaletxearekin zehar arazoak zirela eta, taldea desegin egin zen, era honetan jaiak antolatzailearik gabe gelditu zirelarik. Momentu hartan izan zen oraingo batzordea hasi zenean, 14 urterekin eta inongo esperientziarik gabe. Batzorde berri honen jakituri ezagatik jaien kalitatea txikitu egin zen, baina 3 urte hauetan ikasitakoarekin, aurtengo jaietako egitaraua igo egin dela ziurtatzera ausartzen naiz, batez ere taldea ondo antolatuta dagoelako.

Kontutan hartu beharrekoa da Atxabalta herriko

auzo guztietatik, jaiak ospatzen dituen bakarra dela.

Lehen Lausita, Kalebarraren, Arkarazo eta beste hainbat auzotako jaiak ospatzen ziren, baina hauek antolatzeko jende urritasunagatik, desagertuz joan ziren, azkenean Portasolekoak bakarrik iraun dutelarik.

Auzoetako jaiak desagertzearen arrazoi garrantzitsu eta nagusia dauden arriskuak dira. Eta arrisku guztietatik gehien arduratzen gaituena defizita da. Guri adibidez, bi urtetan gertatu zaigu hau. Lehenengo urtekoa ordaintzeko, taldeko bazkideek dirua ipini behar izan genuen, eta 2. urtekoa aurtent ordainduko dugu, Udaltxeak emandako laguntza izu-

garriari esker.

Nolakoak izan behar diren aurtengo jaiak? Ekintzez beteak. Hiru egun betetzea posible ez denez, 3. eguneko ekintzak murriztu egin ditugu lehenengo biak bete ahal izateko. Hori dela eta, bi egun hauetan zehar zehaztenak, festibala, haurrendako jokuak, dantzaldiak, lehiaketak eta beste hainbat gauza edukiko ditugu.

Beraz animatu eta pasa zaituzte Portasoletik uztailearen 16, 17 eta 18an.


" Arrisku guztietatik gehien arduratzen gaituena defizita da."

Mikel Lopez
P.A.G.L.E.ko
partaidea

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelaiak. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretti Ayastuy eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala.
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Ekologikoan egiten da.

Egiten duzu udan kirolik, ze kirol?




**Jose I. Rodriguez
(Langabetua)**

Bai futbitoan jokaketan dut normalean, hemen antolatzen den txapelketan. Neguan barriz, mutikoak entrenatzen ditut.



**Ruth Gonzalez
(Ikaslea)**

Ez, Segoviara joaten naiz eta ez daukat astirik, baina bestela urtean zehar igari egiten dut.



**Imanol Aginagalde
(Irakaslea)**

Bai, arratsaldetan ibili egiten naiz, paseo batzuk egiten ditut. Beste ezer ez dut egiten.



**Elisabeth Arenaza
(Ikaslea)**

Bai, igari eta futbol apur bat egiten dut. Beste askotan, laguneren artean baloiarekin jokuak egiten ditugu.

KARTAK

Abesbatza jende bila

Aldizkari honetan agertu denez, abeslari berrien izenen jakinean egongo zarete.

Aretxabaletako Abesbatzak esku zabalik hartu ditu, batetik benetan beharrean aurkitzen zelako, baina baita mutil oso jatorrak direlako ere.

Orain ere atxabalta-rreri berriz eskua luzatzen diegu.

Oraingo honetan bazkide berri bila gabil-tza eta urteko kuota 2.000 pzta besterik ez denez jendea apuntatuko dalakoan gaude. Izena ematerakoan, hona hemen telefono zenba-

kiak eta arduradunak:

- Jaione Olabe
79 75 41
- Jose Cruz Urcelay
79 05 28
- Joxeba Lasagabaster
79 01 57
- Alberto Uribetxebarria
79 28 73

Eskerrikasko eta hurrengo arte.

ABESBATZA

Kanposantu berria

Jadanik konturatuko zinen herriko kanposantuan obratan ari garela. Obra hauek medio direlarik gaur egungo kanposantuko kapazitatea zeharo haundituko dugu.

Proiektuan, 272 nitxo azaltzen dira eta hortik aparte 24 hilobi arrunt eta hezurtegi txiki batzuk ere bai.

Jakin nahi genuke zein den jendearen eskaera, eta horretarako zuen etxeetara helduko da eskaera orri bat.

Nitxo bakoitza 200.000 pzta. kobratuko da eta 99 urterako emango da. Familia bakoitzak 2 nitxo alokatzeko aukera izango du.

Eskaera jaso ondoren nitxoaren zozketa egingo da publikoki, eta horren berri emango zaizue.

Zuen erantzunaren zain gaude.

Adeitasunez.

**ARETXABALETAKO
UDALA**



San Lorentzo jaiak Portasolen

Aurten ere, urtero moduan uztaileen 16, 17 eta 18an Portasolen jaiak izango ditugu. Portasoleko Auzoko Gazte Lagun Elkarteak antolatuko ditu jaiak.

Jaiak 16an arratsaldeko 7etan hasiko dira txupinazoaz. 8etan poteo popularra izango da auzoko tabernetan zehar. 10,30etan Alai taldearekin kamp dantzaldia egongo da eta gazteendako 11etan rock jaialdia Kirol Etxean: Parabelun eta Anticuerpos taldeekin.

Hurrengo egunean,

diana izango da Lora-mendi taldeko txistulariekin eta baita San Lorentzo futbito 24 orduen hasiera Udal Kirol etxean. Eguerdiko 12etan Araba Ibilbidean Sokamuturra eta ondoren berriro ere auzoko tarbenetan zehar poteo popularra. Arratsaldeko 3etan Mus txapelketa egingo da. Mus txapelketa horretarako izen ematea 2,30etan hasiko da, bikote bakoitzak 1000 pza ordaindu beharko du eta sari bikainak egongo dira. 3,30etan Xake txapelketa egongo

da eta 4,30etan txikiendako jolasak Gipukoako plazan, horren ostean txokolatada. 6etan erraldoiek eta buruhandiek urtengo dute herriko txistulariekin. 7etan Araba Ibilbidean zehar Sokamuturra eta ondoren gezurra ematen badu ere, berriro poteo popularra. 11,30etan Gauero taldearekin dantzaldia eta dantzaldia bukatutakoan txokolatada egongo da denondako.

Eta oraindik gogoada ukana rendako gantzontzilo eta kulero

lehiaketa ikusgarria egingo da, pena mezikiko du.

Domekan goizean, 10etan San Lorentzoren ohorez Almeneko elizan Meza emango da. 11etan gazteentzako marrazki lehiaketa Gipuzkoako plazan. Parte hartu gura duenak 18 urte baino gutxiago izan beharko du. 12etan gosea zabaltzeko tortila txapelketa antolatzaileen txosnan. Tortila txapelketan parte hartu gura duenak, tortilak etxetik eginda ekarri beharko ditu, epaimahai lanetan auzoko sukaldariak ibiliko dira.

Guzti honekin jaietamaiera emango zaie.

Antolatzaileek, aurten San Lorentzo jaietara jende ugari erakartzea espero dute eta jendeak parte hartzerantz animetan dute eta ea 3 egun zoragarri pasetan dituzten auzokide guztiek, denok parte hartuz.

Antolatzaileak esan digutenez, aurten ere urtero moduan jaietan txosna ipiniko dute, betiko lekuan.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
Diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

**SAGASTA
ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABAETA



Pintura eta Andramari kartel lehiaketa

Atxabaltako Udal Kultura batzordeak uztailearen 4ean pintura lehiaketa antolatu zuen haur eta gaztetxoendako.

Lehiaketan parte hartu zutenak egun guztian zehar ibili ziren kaleetan eta auzoetan kuadroak pintatzen. Arratsaldeko 7etan, Atxabaltako udaletxeko Ganbaran epaimahaia elkartu ondoren, 42 lan aurkeztu ziren. Epaimahaiak honako sariak eman zituen: lehenengo saria, Joseba Andoni Urizabel; bigarrena Esteban Oroz eta hirugarrena Jon Andoni Aristegui. Lehenen-

go atxabaltarra Idoia Elexpuru izan genuen, bigarrena Gurutze Mujika eta hirugarrena Luis Mesonero.

Gaztetxoetan, lehenengo saria Gorka Zubizarretarendako izan zen, bigarrena Joana Carrillorendako eta hirugarrena Josune Camachorendako.

Andramari lehiaketan, barriz, 40 lan aurkeztu ziren eta Miguel Angel Antelo Bujana izan genuen irabazlea, Maite lemapean.

Parte hartu dutenen kuadro eta kartel erakusketa udaletxeko ganbaran izango da ikusgai uztailearen 23 arte.

Argazki erakusketa Euskal-txokoan

Datorren uztailearen 16tik 23 arte, Euskal Txokoan, argazki erakusketa interesgarria egongo da ikusgai, "Euskal Tradizioaren jaiak" lemapean.

Argazkiak Juan Maria Feliurenak dira. Antolatzailerak Kutxa Fundazioa eta Aretxabaletako Udala dira. Erakusketa aste barruan arratsaldeko 6etatik 8ak arte egongo da zabalik eta asteburuetan goizeko 12etatik 2ak arte eta 7etatik 8,30ak arte.

Erakusketako lehen zatian ihauterien munduko alderdi desberdinak lotzen dira argazkien bitartez. Urte hasieratik hasita, tradizio zaharrei jarraituz: zigurtzaileak, maskaradak...

Gero Aste Santuko zikloa ikusteko aukera izango da, ohizko prozesioekin; penitentziako prozesioekin, "Judas" en oinazeak...

Azkenik Aralar San Migelen jai ibiltaria, Nafarroako herrietan zehar; erlijio-jai maila apalagoak; zaindaria, penitentziak; natur zikloen jarraipenari lotuak dauden jaiak, artzainen arteko hitzarmenak eta korpus egunak izango ditugu ikusgai.

• Uztailearen 24ean, arratsaldeko 4etatik aurrera, Arlutze-ko toldoan, mus txapelketa egingo da. Izen emateko epea uztailearen 23an amaituko da eta bikote bakoitzak 1.000 pzta ordaindu beharko du. Irabazle izateko, 8 erregeko hiru partida, 35 harrirekin irabazi beharko ditu eta beti erabiltzen diren seinak onartuko dira.

• K-2 koak heldu dira beheko kanpamendura. 25 Kmtan eurak pisu guztia eroanda gero, beheko kanpamendua jartzea lortu dute nahiz eta uste baino beherago izan. Notizia honekin jarraituz, oraingo egunean Murruxiko aurrean banderarin arraro batzuk ikusiko zenituzten. Banderin horrekin Nepaleko Otoitzak dira, igotzen lagunduko dietenak.



Atzeratuen jaia

Uztailaren 3an, Atxalbaltako atzeratuen aldeko taldeak antolatutako urteroko jaia izan zen Larriñon, iaz Mendiolan ospatu zen jai hau.

Hasiera batean asmoa goizeko ekintzak Otalazelain egitea zen, baina eguraldiak ez zuen lagundu eta azkenean dena Larriñon egin zuten.

Goizean gaztelu puzgarria jarri zuten, eta denen artean jokuak egin zituzten, bonba japoniarak ere izan zituzten. Trikitilariak ere bertan izan ziren eta dantza ugari egiteko aukera izan zen bertan bildutako guztien

artearen.

Ondoren Larriñoko Elkartean, 85 lagun elkartu ziren bazkaltzeko eta antolatzaileen esanetan benetan giro polita eta alaia egon zen.

Bazkalostean berriro trikitilariak alaitutako dantzaldia izan zuten, beraz egun horretan parte hartu zuten guztiak nahiko dantza eginda joango ziren etxera.

Ea datorren urtean ere berriro ospatzen den jai hau eta eguraldiak gehiago lagunduz aurtengo moduko giro ona egoten den.

Santiago jaiak

Uztailaren 24 eta 25ean Santiago Jaiak ospatuko dira Koruetan.

Uztailaren 24ean, zapatuan, arratsaldeko 5etan umeentzako jolasekin hasiko dira. 6etan kanpai errepikak egongo dira eta jarraian V. Mus Txapelketa eta marrazki lehiaketa egongo da. 7,30etan sari banaketa izango da. Arratsaldeko 8etan meza eta ondo-

ren auzo afaria, 10,30 dantzaldia Elkorobarrutiarekin.

Domekan, Santiago egunean, eguerdiko 12,30etan kanpai errepikak. Ordu batetan Meza nagusia eta ondoren luntxa eta bermot dantzaldia Elkorobarrutiarekin. Jaiei bukaera emateko haurrentzako jolasak egongo dira arratsaldeko 5etan.

Adibidez-erako kartel lehiaketa

HIES EKIMENAK **ADIBIDEZ** mostra iragartzeko kartel-lehiaketa antolatu du. Proiektua zabala dela kontutan hartuta -prebentzioa, hezkuntza, artea eta kultura batzen dituen-, partaidetzak eta ludikotasunak euren garrantzia izango dute. Erakusketa Arrasaten izango da abenduaren 1etik 23ra arte pabiloi industrial

batean.

Kartel lehiaketako teknika librea izango da, kartelean **ADIBIDEZ**en nondik norakoa adieraziko da. Bertan jarri behariko den lema hauxe izango da: **ADIBIDEZ. Arrasaten 1etik 23ra.** Irabazleak globoz egingo den bidaia bat irabaziko du. Lanak aurkezteko epea irailaren 26an bukatuko da.

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

ANDONI ALTUBE

ELEKTRA INSTALAKUNTZAK

Durana, 36
☎ 79 10 60



MAPFRE
Aseguroak

Angel Zubillaga
Aseguruen ordezkaria

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

20550 ARETXABALETA

Badago Atxabaltan emakume bat kantatzea duena afizioa. Bera, Mariatxen Urkia Altube da, txiki-txikitatik hasi zen kantuan eta ordutik hasi zen bere ahotsa lantzen. Horrela, koruan sartu eta kantua inguruko sekretuak ikasten jarraitu zuen. Baina oraindik ere ez da nekatu eta ikasten jarraitzen du Mariatxenek Donostiako kontserbatorioan. Bere berri jakin guran, bere etxera joan gara eta elkarriketa hau izan dugu berarekin.



Mariatxen Urkia: "Egunero gutxienez ordu bat ematen dut praktikatzen"

• **Zenbat urte da-roazu kantua ikasten?**

• 6 urterekin hasi nintzen Almeneko koruan kantetan eta gero Atxabaltako koruan sartu zenean, bertan sartu nintzen. Hori orain dela 12 urte izan zen.

• **Noren bitartez sartu zinen koruan?**

• Angelita Ibarzaba-

lek sartu ninduen. Nire laguna da, bere loba eta hirurok sartu gintuen Atxabaltako koruan.

• **Beno baina ikasketak izango zenuen, ezta?**

• Ez asko. Koruan sartu nintzenezan, kurtsilo batzuk egin nituen, (koru zuzendaritza, kantu ikastaroa) eta

orain Donostiako kontserbatorioan nabil kantoko karrera egiten.

• **Kantua edozeinek praktikatu dezake?**

• Ez da samurra, baina instrumentua (ahotsa) izan behar duzu, eta lana egiteko gogo handia. Kantuan ordu asko sartu behar dira ona izan gura baduzu, ahotsa asko lan-

du behar da kantari ona izateko.

• **Zenbat ordu deditatzen diozu kantuari?**

• Ez da pianoa edo akordeoia jotzea bezalako. Kantua praktikatu ez ezik, beste gauza batzuk ere landu behar ditugu: arnasketa, ahotsa,...

Egunero ordu bat edo bi ordu jarduten dut praktikatzen. Horretaz aparte kontutan hartu behar dira koruko entsaioak eta ostiralero Donostiako kontserbatorioa joaten naizela ikasten.

• **Eta zure etxekoek zer esaten dizute?**

• Beti animatu naute aurrera jarraitzea, nahiz eta sakrifizio handia izan denondako.

• **Zer esango zenioke Atxabaltako jendeari?**

• Afizio polita dela eta pena merezi duela kantua praktikatzek, nahiz eta denbora asko eroan.

**Txema Aragones
Arantxa Galdaera**




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Uztail desberdin bat izateko aukera ederra dute Atxabaltako gaztetxoek. Uztailean umeek oporrak izaten dituzte eta etxean egon beharrean edo ezer egin barik egon beharrean, Atxabaltan bertan udalekuak antolatzea pentsatu zen. Udal Kultura Batzordeak du udalekuen ardura. Urteak joan urteak etorri, gero eta haur gehiago ikusten ditugu uztailean zehar udalekuekin ondo pasetan. Guzti horren berri izan guran, monitore eta haurrekin egon gara berbetan.



Non hobeto udaleku irekietan baino?

Atxabaltako udaleku irekiak orain dela bost bat urte hasi ziren antolatzen. Udaleku horiek goizez eta arratsaldez izaten dira, goizez 10etatik 12,30ak arte eta arratsaldez 3retatik 5,30ak arte.

Udalekuen helburu nagusienak umeek ondo pasatzea eta euskaraz berba egitea dira. Horrela, umeek lagun barriak egin-gotuzte eta euren artean erabiliko duten hizkuntza euskara izango da.

Udalekuetan 3 urtetik 14 urte bitartekoak ibiltzen dira eta adin bereko taldeak

osaten dira, bakoitza bere begiralearekin. Egun bereziak ere izaten dituzte, egun osorako mendi urteerak edo eta txangoak beste lekuren batera.

Orain arteko esperientzia ona izan ei da eta hemendik aurrera ere antolatzen jarraitzeko asmoa dago, umeek uztailean zerbait desberdina egin dezaten.

Aurtengoak zela doazen jakiteko begirale bierekin eta haur batzuekin egon gara. Lehenengo haurrekin hasiko gara. Galderak orokorrean denek berdin erantzuten zi-

zkituten. *A. Muela*

• **Ze moduz doaz zuentzat aurtengo udalekuak?**

• Orain arte oso ondo, gauza desberdin ugari egiten ditugu eta.

• **Ze egiten duzue?**

• Pizsinara joan eta kirol desberdinak egiten ditugu goizetan, eta gero arratsaldean, eskulanak, kamisetak margotu eta abar. Oso ondo pasetan dugu.

• **lazko udalekuekin konparatuz desberdinak dira?**

• Ez dira oso desberdinak, guk hiru edo lau urte daroagu eta antzekoak dira esan dezakegu, nahiz eta urtero gauza desberdinen bat egon.

Haurrekin berba egiten bukatuta gero monito bierekin egon ginen berbetan: Jon Etxabe eta Lore Martinezekin.

• **Zenbat urte daroazu begirale?**

• L: bigarrena da hau.

J: Laugarrena da aurtengo.

• **Zergatik apuntatu zineten?**

• L: Neska mutikoekin ibiltzea asko gustatzen zaidalako, urtean zehar ere ibiltzen naiz eta. Uztailean ondo pasatzearen, beste-laz dago gauza haundirik herrian eta. Eta bestalde, irabazten den dirua ondo datorrelako oporretarako.

J: Dirua irabazten delako eta gainera betidanik ibili naiz udalekuetan. Haurrak ere gustetan zaizkit, nahiz eta askotan pa-

"Gauza desberdinak egiten ditugu eta umeek oso ondo pasetan dugu."

zientzia handia behar.

• **Udalekuak hasi aurretik zer egin zenu-ten?**

• L: Ekainaren azke- nengo astean hasi ginen, batzarretan, udaleku guztietarako progra- maketa eginez. Progra- maketa hori egunez egun gertatu genuen, egun bakoitzean zer egin behar genuen eta ze material erabili.

• **Programazioa aldatzen da urtetik urte- ra?**

• J: Nahiko antzekoa izaten da urtero. Ni ume txikiekin nago eta ez da asko aldatzen, antzeko gauzak egiten dira. Zerbait aldatzekotan egun be- reziak prestatzen dira, adibidez pailazoen eguna izan beharrean musika eguna.

L: Nik adibidez nagu- siagoak ditut eta iaz baino urteera gehiago daukagu. Gainera programeketa askoz hobea da eta gauza askoz gehiago dago: danborrada eguna, desfi- leak eta abar.

• **Ekintza berezirik antolatzen da?**

• J: Egun bereziak. Orain arte azken egunean beti zinean jaialdiak egin dira, baina aurten hori ez da egingo. Egun berezi moduan aurten urteera bat egingo da, oraindik ez dakigu nora joango garen, baina egun osoko urteera egitea pentsatuta dago.

• **Haurren kopurua gehitu ala gutxitu egin da?**

• J: Aurten adibidez



guk txikien taldean iaz baino haur gehiago daukagu. Aurten gehiago apuntatu direla uste dut.

L: Guk ere iaz baino ume gehiago daukagu aurten.

• **Ze adinetako umeak daukazue, eta ze edade duzue gurago?**

• J: Nik 3-4 urtekoak ditut, eta txikienak gurago ditut, beti ibili naiz adin horietakoekin eta.

L: Nik lehenengo mai- lakoak ditut, 6-7 urtekoak. Niri lehenengo bigarren mailako haurrak dira gehien gustetan zaizkidanak. Haundiegiak ez zaizkit gustetan eta txikienekin gehiegi nekatuko nintza- tekeela uste dut, pazientzi handiegia behar delako. Haundiekin ausartagoa izan behar da.

• **Zuen artean zela konpontzen zarete?**

"Aurtengo egun berezia egun osoko urteera izango da"

• Giro ona dago gure artean. Orain ere horretan gabilta ea afariren bat edo egiten dugun.

• **Egin dezakezue aurtengo udalekuei buruzko balorazio txiki bat?**

• Oraindik denbora gutxi daroagu, baina ondo doaz oraingoz.

J: Askotan gurasoak gehiegi arduratzen dira eta badirudi ez dutela guregan konfidantzarik. Bueno ume txikiekin gurasoak ardura- tzea normalago ikusten dut. Aurten da euren lehe- nengo urtea eta ez dute ondo ezagutzen udalekuen mundua.

L: Haundiagoekin ez daukagu horrelako arazo- rik, aurreko urteetan ibili dira udalekuetan eta eza- gutzen dute. Gainera, umeak eurak ere ardurat- suagoak dira.

Oporrak direla eta Galdostar anaia biak izan ditugu Atxabaltan. Inaxio Galdos Indian dago eta bera da Unai proiektua aurrera daroana. Hemen dagoela aprobeztatuz berarekin egoteko aukera ez dugu galdu gura izan eta bertako bizimodua zelakoa den kontatu digu. Baita Unai proiektua zela doan eta atxabaltatik doan dirua zela banatu eta zertan erabili den ere. Proiektua ondo ei doa eta dena atxabaltarrei esker izan dela esan digu.



Inaxio Galdos Indian lanean

• Noiz joan zinen Indiara?

• 40 urte direla joan nintzen Indiara, 20 urte nituela. Gogorra izan zen bi anaioi banatzea baina gustora joan ginen biok.

• Ze arrazoiengatik joan zinen?

• Misiolari izan gura nuen eta hango jendeak gure beharra zuelako. Orain hango jendea eta kultura ezagututa gero ideiak aldatu egin dira eta orain gure lana sozioekonomikoa da batez ere. Arlo ekonomikoan, gizarte mailan eta justiziaren alde egiten dugu. Lan haundia egiten dugu bizi duten egoera hobetzeko.

• Zenbat ordu egiten duzue lanean?

• Ez daukagu ordutegirik guri deitzen digutenean edo gure beharra dutenean prest egoten gara laguntzeko eta esaten digutena egiten dugu. Ni, adibidez, goizeko 5etan jaitzen naiz eta gero jendearen esanetara egoten naiz, herrietan gure beharra badago hara joaten naiz gaixoren bat bada ere berdin. Jendearekin jaten dugu normalean eta batzuetan eurekin lo ere egiten dugu, eurek uzten dizkiguten oheetan.

• Zelako harremana daukazu hango

jendearekin?

• Harremanak oso onak dira. Guk ezin dugu eurak barik bizi eta ezta eurak ere gu barik. Asko da Atxabaltatik jaso dugun laguntza eta laguntza honek asko esan gura du bizitzen jarraitzeko orduan. Laguntza honek optimismoa pizten digu. Gure artean ez daukagu inolako arazorik, harremanak oso sakonak dira.

• Zela bizi dira han, oso pobreak dira?

• Oso pobreak dira eta sinismen bereziak dituzte eta askotan gaixorik egon arren ez dira medikuarengana joaten. Asko prestamistek zapalduta daude eta

hortik urteteko lan egin behar dute eta lan gogorra da hori. Bizimodu latza bizi dute pobretasunean eta boteretsuen menpean. Egoera horretatik urteteko denbora luzea pasatu behar da.

• Zela sortu zen Unai Proiektua sortzeko ideia?

Indioekin hona etorri ginenean hemengo batzuekin hango egoerari buruz berba egiten egon nintzen eta hortik sortu zen ideia, beraz esan daiteke atxabaltarrengandik sortu zela ideia.


• Eta zela doa orain?

• Oso ondo doa. 12 putzu zulatu ditugu eta orain barriak eraikitzen kotan gaude. Ia 500 akre zapaldu ditugu eta baita haziak bota ere. Eskolak ere aurrera doaz. Beraz, emaitza onak ematen dabil Unai proiektua, bai ekonomikoki eta baita gizarte mailan ere, orain ez dira horren zapalduak sentitzen.

• Hemendik hara zela joaten da dirua?

• Hirugarren mundukoek jasotzen dute eta gero Donostian daukagun idazkaritzara bidaltzen dute. Handik Gujerateko idazkaritzara eta han pezetak dolarretan aldatzen dute eta gero nik jasotzen ditut eta Unaiko bankuan sartu. Dena ondo apuntatuta daukat, zenbat diru gas-tatzen den eta zenbat hartzen duen bakoitzak.

Aitor Atxaga eta Asier Ugarte gazteak, herri guztiak futbola, saskibaloia, eskubaloia,... egiten badu ere eurek eskalada egiten dute. Aitor Atxaga orain 3 urte hasi zen eta Asier Ugarte orain urte bat. Orain Murruxion antolatutako eskalada ikastaroak ematen dabilta. Biek hasiera berdina euki zuten. *"Murruxion hasi ginen, Murruxion antolatzen dituen ikastaroetan, ondoren gure kontura joan gara ikasten"*



Eurek esaten dutenez eskaladan ere maila desberdinak daude. Kontutan euki behar da bide bakoitzak bere graduak dituela: zailak, samurrak,... *"Bideak zabalzen dituzten pertso-*

Arlutzeko saskibaloia txapelketan, zapatu honetan jokatuko da finala eta 3. eta 4. postuetarako partidua. Finala zapatuan arratsaldeko 6etan izango da: Fatxus & the other eta Arabatxo Wakak jokatuko dute. 3. eta 4. posturako partidua arratsaldeko 5etan jokatuko da, Basotxo taldea Don Mendoren aurka. Suerte eta onenak irabazi dezala.

Horman gora, muskerrak letxe

nek eurek ipintzen dizkietegraduak. Pertsona hauek esaten dute, bide hau zaila denez, bosteko zailtasun bat izango du edo aldearantziz. Guk bideak ikusteko krokisak daude, bide bakoitzaren zailtasunak ikusteko".

Materiala oso karua dela esan digute: soka batek 20.000 pzta inguru balio du, gerrikoak 12.000 pzta. Baina nahiz eta garestia izan, behin erosten duzunean asko irauten duela esan digute. Soka adibidez, urte batera aldatu behar direla esan digu-

te. *"Guk orain arte Murruxion materiala erabili dugu, Murruxion Batzarraren sartu ginenean, materialaren arduradun jarri gintuzten eta guk materiala erabiltzen dugu. Material hori 16 urtetik gorakoentzat uzten dugu, 16 urtetik beherakoek gurasoen baimena eta ikastaroren bat euki behar dute eginda".*

Eskalada ez da arriskutsua. *"Ondo eginez gero ez da arriskutsua. Konfidantza hartzen duzunean izaten da arriskutsua. Gainera eskalada ikastea ez da bat ere zaila, bide zailagoetara pas-*

satzen garenean etortzen da zailtasuna. Zenbat eta bide zailagoak orduan eta gehiago entrenatu behar da, eskaladan maila altu batean ibiltzeko egunero entrenatu behar duzu"

Atxabaltan eskaladarako afizio haundirik ez dagoela esan digute. Azkenengo urteetan asko igo badu ere. *"Hasieran beti egoten da modatxo, baina gogorra denez eta egunero zerbait egin behar denez, jendeak ez du jarraitzen"*. Baina eurek uste gute poliki-poliki joango dela afizioa zabal-tzen.

Joan zen zapatuan, Gipuzkoako futbol federazioak Asanblada egin zuen Zumaian. Bertan hainbat puntuetan eztaba idatzi zen. Eta puntu horien artean Atxabaltarrendako notizia polit bat zegoen, Jose Luis Txintxurretari Gipuzkoako Federazioak, bere kirol merituengatik urrezko domina ezarri zion.



Hona hemen 1977-78 denboraldiko U.D.A.ko ekipoaren argazkia. Hamabost urte hauek ospatzeko afari bikaina izan zuten joan zen astean. **Zutik:** Jesus Urkia (entrenatzailea), Andoni Zubizarreta, Iñaki Baltzategi "Erregetxo", Unzueta, Iñaki Urreta, Jesus Alkizu, Josetxu Vitoria, Jon Ander Mendieta eta Eloy Uriarte (lehendakaria). **Makurtuta:** Iñaki Azkargorta, Aitor Okamika, Eduardo Altube, Fernando Oyanguren, Bolinaga "Pirulo", Valentin Tramon, Jesus Moreno eta Agustin Arrizabalaga "Tinín".

ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.


- Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fracak zozketatuko dira.

Hona hemen aste honetako galdera:

Ze auzotan dago, argazkian ageri den kanposantua?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: San Blas)

Aurreko lehiaketaren irabazlea: LARRAITZ ARANDO. Zorionak.



Erantzuna:.....
 Izen-abizenak:.....
 Helbidea:.....
 Tfnoa:.....

Aupa uda



J.J. Aretxaga

Uda iristen denean jendea aztoratuta ibiltzen da. Atsoak (ez dut esan zaharrak) eta morroskoak moreno-karrera egiten eguzkitan, normal dagoen jendea errejimenean, alperrek kirola egiten, umeak mutikokeriak egiten (hau ez da oso normala aspaldian). Udako aztoramendua demostretako era bat Urkulura fatea da. Itxura denez bateronbatzuk igeri egiten dute pantanoan. Hori dala eta ez dala, obsesionatuta dabil **Josebi Ramos**, DV egunkari erdalduneko barriemalea. Azken astean hiru egunetan jarraituta gauza bardina eskribidu ei du.

Udan lan egitea ez ei da normala, baina **AED**koek gazteei lan eragin gura diete udan. Horretarako auzolandegiak antolatu dituzte Iparraldeko Kanbo herrian. Zertarako? Egunean lau ordutan Seaskako ikastola bat konpontzeko eta eguneko beste hogeitau ordutan ondo pasetako. Atxabaltako gazteak

ere joan daitezke, jende barria ezagutzeko modu polita izan daiteke.

Urrinago fanda, k-2 inguruan dabilzan atxabaltarrak ez dakigu zertan dabilzan, telefonoa hondatuta ei dute. Hori dela ta, Murruxokoez Everest-etik ekarritako otoitz oihalak ipini dituzte kalean. Ea hemengo laguntzaz konpontzen zaien telefonoa.

Kirolaz jarraituaz. **Joseba Larrinagak** 5.000 metroko Gutxitu Fisikoen mailan Espainiako txapelketa irabazi berri du. Bera izan zen parte hartzaile bakarra; horrek ere badu meritua. Espainiako beste txapelketa batean egon dena **Fran Migel** da, bere espezialidadea xakea da.

Dagoeneko oporretan dagoena **Aitor Antxia** alkateordea da. Gure "anaiak" bisitatzeraz joan da Maria Wörth-era, ondo pasatu dezala Austria aldean. Beste zinegotzi bat, **Jose Mari Armentia**, zapatuan **Maite Maquedarekin** ezkonduko da. Zorionak edo.

Udan beste kirol barri bat sortu da Atxabaltan: emakumeen barruko erropen lapurketa. Azken egunetan San Migel auzoko hainbat emakume konturatu dira sikaketan jarritako kulero eta titizorroak harrapatu dizkietela. Bakarren bada barruko erropa barik gelditutakoa ere. Ez dut esango izenik.

KOMIKIA



16 EGUAKOTXA

- San lorentzo jaien hasiera Portasolen. (ikus egitarau berezia).

- Euskal Txokoan, Euskal Tradizioen erakusketa zabalduko da, abuztuak 1erarte.

Udala - Loiola - Urres-
tilla - Atxabalta. (107
km).



- San Lorentzo jaiiei bukaera, eguerdian.



27 DOMEKA

- Zikloturisten urtee-
ra: Atxabalta - Urbina -
Gasteiz - Eroski - Lan-
graitz - Atxabalta. (96
km).

18 DOMEKA

- Zaraia Mendi.
Taldeak kostaldetik
txangoa.

- Zikloturisten urtee-
ra: Atxabalta - Oñati -

23 EGUAKOTXA

- Zaraia Mendi
Taldeak rally fotogra-
fikoaren sari banaketa
egingo du.

24 ZAPATUA

- Arlutzen mus
txapelketa.

25 DOMEKA

- Koruetako jaiak. Ikus
egitarau berezia.

31 ZAPATUA

- San Inazioa egu-
na, Muru Alde Elkarte-
ren eguna.

ARETXAZOKA

Lana

- OHO-ko klase par-
tikularrak ematen dira.
Interesatuak deitu 79 87
36 tfnora eta Anabeleg-
atik galdetu.

- Ingenieritzako
ikaslak bat, klaseak ema-
teko prest: Matematika,
teknologia, fisika eta ki-
mika. O.H.O, REM eta
U.B.iko mailetan. Intere-
satuok telefono honeta-
ra deitu: 79 50 39

Lana

- O.H.O, batxiler eta
ingeleseko klase partiku-
larrak ematen dira uztai-
lean. Tfnoa: 79 04 76

- 8. mailako haur
bati, klase partikularrak
emateko pertsona bat
behar da. Tfnoa: 79 05
26.

- Euskera eta ingele-
seko klaseak ematen dira
uztailean arratsaldez,
E.G.B mailakoei. tfnoa:
79 96 91

Salerosketak

- Ezkontzako soine-
ko bat saltzen da, buruko
apaingarri eta kankana-
rekin. 80.000 pztako
prezioan. Tfnoa: 76 17
81.

Denetarik

- Aliantza bat galdu
da. L.L inzialekin eta 25 -
X - 31datarekin. Aurki-
tzen duenak deitu tele-
fono honetara: 79 45 95.

**Orrialde
honetako
iragarkiak (lana,
etxebizitza,
salerosketak eta
abar) debalde
dira. Testua
idatzi eta bidali
gure bulegoetara
edo 151
postakutxatilara.**

SEAT

GARAJE OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN

 MANTEKA
 ANAIK

**BASABE
 JATETXEA**
 Menu eta afariak
 industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA

 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

ARLUTZ
TABERNA

 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34


**HAIZEA
 AKEITEGIA**

 Mitarte Kalea, Z/G
 Tfnoa: 79 85 57

**T
 X
 I
 L
 A
 R
 R
 A**

**ELIKADURA
 BEREZIA**


 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15

 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28

 ARETXABALETA

**Zatoz ezagutzera
 ZUHAITZ
 jatetxea!**

 BAZKARI
 ETA AFARI
 ONENAK!!!
 Tfnoa: 71 46 08
GATZAGAN


IRAKASLE ESKOLA
 Eskoriatza
 Gipuzkoa



 Magisterio Eskola honek zera
 jakinarazten du:
**1993-94 Ikasturterako aurreinskripzio
 epea zabalik dagoela.**
Espezialitatea:

- Haur -Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa
 Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57


MASAILARIAK
MASAIK ZARAIA
 MASAIK eta
 OSTEOPATIA

 Loramendi 13 - 1-A
 Tfnoa: 79 71 55

**IBARRA ES-
 BANKOA**

**Tabakoa eta
 ikasmateriala**

 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77

"HERRASTI "
AKEITA ETXEA

 Aralar Kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

NERIAN
 Loradenda

 Otalora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66



ATXABALTARRON ALDIZKARIA

Aretxagazeta Elkarte, Kultur-Etxea.

ARETXABALETA

Tfnoa: 79 01 05

151 postakutxatila